




**Xabier Arzalluzek
EAJko
lehendakaritzako
hautagai izatea
onartu du,
alderdiburuek
hala eskatuta • 6**

Estrasburgok Frantzia zigortu du torturatzeagatik, EBko herri bat lehen aldiz

Poliziak tratatu txarrak eragin zizkion ustezko droga trafikatzailer bati

■ ESTRASBURGOKO Giza Eskubideen Aldeko Auzitegiak Frantzia zigortu du tortura erabiltzeagatik. Lehen aldia da Auzitegi horrek torturatzeagatik Europako herrialde bat zigortzen duena. Aurrez Turkia kondenatu izan du Estrasburgok, baina Turkia ez da EBko kide. Frantziako tortura kasua 1991n gertatu zen:

**Versaillesko Auzitegiak legez
kanpokotzat jo du Gomez eta
Mondragonen Espainiaratzea**

bost poliziak tratatu txarrak eragin zizkion Ahmed Selmouniri. Ustez droga trafikatzailer bati atxilotu zuten. Auzitegiak 17 epailek aho batez hartu dute erabakia. Frantziak 500.000 libera eman beharko dizkio Selmouniri kalte-ordain gisa (12.500.000 pezeta) eta beste 113.000 libera justizia gastuetarako. • 22



Sardiniarrak
Mediterraneoko
uretatik eredu
bila

**Eneko Olasagasti
eta Carlos
Zabalaren filma
'Si quiero'
estreinatuko da
bihar**

politika

■ Rabanerak PSEri eta EAJri gobernagarritasunean laguntzeko deia egin die berriro • 8

gizartea

■ CAFek egingo ditu Bilboko tranbiak, hiru mila milioi pezetako kostuarekin • 14

ekonomia

■ 35 orduen legeak ehun mila enplegu sortu edo iraunarazi ditu Frantzian joan den urteko urritik • 19

■ Lan kontratuen % 93 behin-behinekoak izan ziren iaz Hego Euskal Herrian • 20

kirola

■ Selekzio ofizialak ahalbidetzeko legea onartu du Kataluniako Parlamentuak • 31

kultura

■ Donostiako Jazzaldiko zuzendariak emanaldien «kalitatea» azpimarratu du • 34



Sanzek «politika zabala» agindu du kargua hartzean

■ MIGUEL SANZ-EK atzo egin zuen Nafarroako lehendakari karguaren zina, Jose Luis Castejon Parlamentuko presidentaren eta Angel Acebes Espainiako Administrazio Publikoetako ministroaren aitzinean. Gobernuaren politika «zabala» izango dela agindu zuen UPNko buruak. Sanzek UPNren eta PSNren arteko akordioaren garrantzia nabarmendu zuen hitzaldian. Argazkian, Sanz, Acebes eta Alberto Ruiz Gallardon, Madrilgo Autonomiako presidentea, topa egiten. • 7

